

SAN FERMIN 2019

IRUÑA, UZTAILAK 6-14

Festen Programa



-SAN FERMÍN 2019-

PAMPLONA · IRUÑA 
6 AL 14 DE JULIO · UZTAILAREN 6TIK 14RA



Ayuntamiento de
Pamplona

Irúñeko
Udala



ARGITALPENA

Iruñeko Udala

HITZAURREA

La Pamplonesa Udal Musika Banda

DISEINUA

Marisa Mantxola

INPRIMAKETA

Gráficas Biak

LEGE-GORDAILUA

LG NA 671-2014

SANFERMINETAKO KARTELA

Eduarne Taínta Balda

HEDAPENA ETA BANAKETA

Iruñeko Udala

Kultura eta Hezkuntzako Alorra

Descalzos, 72. 31001 Iruña

cultura@pamplona.es


www.pamplona.es | www.sanferminofiziala.com

Nazioarteko interes turistikoko jaiak, 1980az geroztik

© Iruñeko Udala







Mundu osoa gelditu egiten da eta arnasari eusten diogu segundo-hamarren batzuetan urtero uztailaren 6an, eguerdiko 12etan txupinazoa gure hiriko zeruetara igotzen den bitartean, han goian erabateko bozkarioaren erdian eztanda egiteko. Edozein iruindarrek eta festetan bisitan etorri zaigun edonork ezagutzen du sentsazio paregabe hori.

Hala ere, gutxitan pentsatzen dugu guztiok munduko festarik onenekin gozatu ahal izateko badirela egun horietan (eta are aurreko hilabeteetan ere) lanean ari diren ehunka lagun. Horien artean eskertu behar dugu segurtasun indarren lana, bereziki Udaltzaingoarena, Hiri Kontserbazioko eta garbiketako langileen lana, Kulturako langileena, Gurutze Gorria eta DYArena, entzierroko arotzena eta unaiena... Eta eskertzekoa da, baita ere, gure hiriko zerbitzu-sektorean lan egiten duten guztien lana.

Kapitulu berezia merezi du aurten mendeurrena ospatzen ari den La Pamplonesa Musika Bandak, iruindarrek hura aukeratu baitute 2019ko Txupinazoa jaurtitzeko Udalak antolatutako bozketan.

Sortu eta hilabete batzuetara parte hartu zuen Bandak sanferminetan, lehenengo aldiz, 1920an. Gauza asko aldatu dira hastapen horietatik, non musikariek bi eta bost erreal bitarte kobratzen baitzuten egunean eta Bandak 1.000 pezeta baino ez baitzituen jasotzen Udalaren diru-laguntza gisa.

Jada iragana den garai batean diru-bilketa herrikoiak egiten zituzten instrumentuak erosteko gastuetarako.

Hiriak bandari dion maitasunak, ordea, bere horretan dirau: Erabateko pasioa, La Pamplonesak parte hartzen duen ekitaldi guztietan agerian geratzen den bezala.

Ehun urte hauetan La Pamplonesak ‘soinu banda’ jarri dio hiriko ospakizun gogoangarri ia guztiei. Haurtzarotik, Iruñean bizitako uneen artean memorian maitasun handienarekin gordetzen dugun horien parte da Bandaren musika.

Horregatik, Iruña eta bertako bizitza kulturala ez genituzke ulertuko hainbeste une atsegin oparitu dizkigun banda gabe, eta guztiz bidezkoa da hiriak La Pamplonesari omenaldia egitea Txupinazoa jaurtitzeko aukera emanda, hori baita, ziurrenik, iruindar batek izan dezakeen ohorerik handiena.

Ospatu dezagun beraz, 12:01etik aurrera, munduko festarik onenak alaitasun eta bizikidetasunean, eta, baita ere, errespetuan.

Defenda dezagun sanferminen irudia eta, harekin batera, festen historia, sustraiak eta tradizioak, lur honetan belaunaldiz belaunaldi transmititu baitira paregabe jai paregabeak bilakatzeraino.

Izan gaitezen sanferminetako festen enbaxadorerik onenak.

Enrique Maya
Iruñeko Alkatea



Ehun urte la Pamplonesarekin

Aurten, 2019an, ehun urte betetzen ditu La Pamplonesa Musika Bandak. 1919ko urrian, 37 musikari nafarrek izaera zibileko musika-banda bat sortu zuten, eta geroztik, mende bat igarota, hazten joan da gaur arte.

Zailtasunak egon baziren ere, beti izan dute helburu bat eta berbera inoiz bandako kide izandakoei: Iruñeak musika-erreferentzia bat eduki zezala ekitaldi mota orotan, dela kontzertu, dantzaldi, ospakizun erlijioso eta zibiletan dela festa-kalejiretan.

1920. urtean jo zuten lehenbiziko aldiz sanferminetan, Udaltzari lagunduta bere hiru protokolo-ekitaldietan. Orduz geroztik, ez du huts egin hitzordura; hortaz, aurten ehun festa betetzen ditu jarraian sanferminetako soinu-banda bereziaren parte gisa.

Zuzendari guztiek, gehiago edo gutxiago, egin dute beren ekarpena, errepertorio berriak sortuz edo une bakoitzarentzat egokiena hautatuz: lehen hamarkadetako sanferminetako musika gehiena sortu zuen Silvanio Cervantes bandaren fundatzailearekin hasi eta Manuel Zugarrondo, José Cervantes, Saturnino Sorbet, José Luis Gómez, Manuel López eta Ricardo Garcíaekin jarraituta. Ezin aipatu gabe utzi gaur ditugun Jesús Garisoain “dianen arima” eta J. Vicent Egea. Eta, nola ez, Manuel Turrillas, zeinak La Pamplonesako kide izandako 50 urtean bandarentzat zein iruindar guztientzat konposatu baitzituen egun ere bandaren, peñen eta errondailen bidez entzuten den musika gehiena.

La Pamplonesak hogeiki ekitalditan parte hartzen du, sanferminetan egiten direnetatik, eta denak jendetsuak dira. Txupinazoa eta gero, Gainzaren Biribilketa jotzen du Udaletxean, eta kalera ateratzen da bandarik gabe festa ulertzen ez dutenen maitasuna jasotzera. Egundorretan berean, 6an, Riau-Riauk bere musikarien nortasuna erakusten du, ia beti irriño batez. Are hunkigarriagoa da 7ko Prozesioa, non bere martxen bidez Alde Zaharreko harrien durundia eragiten baitute, bertaratuen txaloak eta musikari baten edo besteren zizpurua sorraraziz. Eta dianak, etengabeko dantzan elkartzen dituztenak hala gautxoriak nola festaren segundo bakar bat ere galdu nahi ez duten goiztiarrak. Eta mandakoen desfileak, bakarrak munduan, non bere musika-dotorezia eta -maisutza denon zerbitzura jartzen baitute. Eta zortziurrena, gala hoberenez jantzita, erraldoien, buruhandien, kilikien eta dantzarien dantzetan laguntzeko. Une horiek guztiak intentsitate eta emozio handikoak dira, eta haietan festa benetan bizi duen jendearen maitasun paregabeari antzematen ahal zaio.

Gaur egundor nekez irudikatu daitezke La Pamplonesa gabeko sanferminak; eta bandako kideek ezin dituzte irudikatu laguntzen dion jendearen maitasunik gabe. Bat egite horrek, hain zuzen, egiten du posible hauek “parerik gabeko festak izatea”.

Mundu guztiak gozatu ditzala, bada, La Pamplonesarekin batera, eta ez dadila falta bere musika.



6 LARUNBATA

Txupinazoa

12:00

TXUPINAZOA.

Udaletxea. Pantaila erraldoien bidez emanen da Antoniutti parkean, Sarasate pasealekuan, Karlos III.aren etorbidean, Gazteluko plazan eta Foruen plazan.

MUSIKA KALEAN. Irteera Antoniuttitik, Udaletxe plazatik eta Sarasate pasealekutik.

13:30

FOLKLORE-JAIALDIA.

Foruen plaza. Taldeak: Amaiur, Ardantzeta, Basakaitz, Duguna, Eluntze, Harizti, Iruña Taldea, Larratz, Mikelats, Muthiko, Oberena, Ortzadar eta Txori Zuri. Dantzak: Burlatako kanpaneroak, Markina-Xemeingo ezpatadantza eta Larraindantza.

17:00

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.

Konpartsaren irteera autobus-geltokitik.

17:30

BIRJOLASTU. Taconera.

Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 20:30 arte.

18:00

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 20:30 arte.

18:30

BURTZIEN ZEZENKETA.

Zezen-plaza.

19:00

DANTZALDIA.

Gazteluko plaza. Nueva Etapa orkestra. 20:50 arte.

20:00

SAN FERMINEN BEZPERA NAGUSIAK.

San Fermin kapera (San Lorentzo eliza). Iruñeko Katedraleko Musika Kaperak eta Nafarroako Orkestra Sinfonikoak Mariano García Zalbaren (1809-1869) Bezpera tradizionalak interpretatuko dituzte, haren heriotzaren 150 urteurrenean. Zuzendaria: Katedraleko kapera-maisua.

KONTZERTUA. Compañía plaza. Nicolette Allstars. Txabi Hi Fi b2b Garcynoise.

TXOTXONGILOAK.

Askatasun plaza. *Gorgorito en el país de los ratones*. Maese Villarejoren txotxongiloak (gaztelaniaz).

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Euro Show orkestra. 22:00ak arte.

20:30

MUSIKA KALEAN.

Karlos III.aren etorbidea (Entzierroaren monumentua).

21:00

DANTZALDIA.

Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

ANTZERKIA KALEAN.

Karlos III.aren etorb. *Haurrendako entzierroa*. El torico konpainia (Errioxa - Nafarroa).

21:45

ZEZENSUZKOA. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

SANFERMINETAKO EGILE-SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XX. LEHIAKETA.

Ziudadela. *Spirit of life - Bizitzaren espiritua*. Diseinugilea: Manuela Rehak. Su-etxea: FireEvent, Die Feuerwerker (Hohenems, Austria).

23:30

KONTZERTUA.  Foruen plaza. 23:30, Soraya. 00:30, Efecto Mariposa.

DANTZALDIA.


Gazteluko plaza. Nueva Etapa orkestra. **DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Euro Show orkestra. 01:30 arte.

23:45

KONTZERTUA. Compañía plaza. Hot 8 Brass Band.

24:00

MUSIKA KALEAN. Irteera Udaletxe plazatik.



7 IGANDEA

San Fermin!

06:45

DIANAK. Kale Berritik abiatuta.

7:00

ZALDI-AZIENDAREN FERIA. Agustindarren industrialdea. 15:00ak arte.

08:00

ZEZEN-ENTZIERROA. Festetako lehena.

09:30

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.

Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

10:00

SAN FERMINEN PROZESIOA ETA MEZA.

Udalbatzak Kabildoa jasoko du eta San Fermin kaperara abiatuko da. Santuaren ohorezko Meza Nagusia. Iruñeko Artzapezpikua eta Katedraleko Kabildoa buru egonen dira, eta Katedraleko Musika Kapera, Iruñeko Orfeoia eta orkestra ariko dira. Juan M^a Guelbenzu Fernández (1819 - 1886) musikari iruindarren jaiotzaren II. mendeurrenaren karietara, haren "Misa a 4 y orquesta" obra berrestreinatuko da. Zuzendaria: Katedraleko kapera-maisua.

11:30

BIRJOLASTU. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.

12:00

MUSIKA KALEAN. Irteera San Nikolas kaletik, Descalzos kaletik eta Labrit frontoitik.

17:30

PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDEN DESFILEA. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 20:30 arte.

18:00

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 20:30 arte.

18:30

ZEZEN-FERIAREN LEHEN ZEZENKETA. Zezen-plaza.

19:00

DANTZALDIA.  Gazteluko plaza. Super Hollywood orkestra. 20:50 arte.

HAURRENDAKO

IKUSKIZUNA. Sarasate pasealekua. *Gora Kasete!* Eidabe konpainia. 20:00ak arte.

20:00

KONTZERTUA. Compañía plaza. Jare! Babel.

TXOTXONGILOAK.

Askatasun plaza. *Gorgorito y Garrafito en la India.* Maese Villarejoren txotxongiloak (gaztelaniaz).

GAZTE EREMUA.  Foruen

plaza. Hasiera. Amaya Arboniés. Atrakzioak: Zanpatu satorra, bola-irenslea eta erraztatzailea. Lantegia: "Kustomizatu sanferminetako zure arropa". Apar-festa. #Goldendjs. 12 - 17 urte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Isaura orkestra. 22:00ak arte.

21:00

DANTZALDIA. 

Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

ANTZERKIA KALEAN.

Karlos III.aren etorb. *Candore.* Bambolea konpainia (Madril).

21:45

ZEZENSUZKOA. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

SANFERMINETAKO EGILE-SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XX. LEHIAKETA.

Ziudadela. *Suaren dantza.* Diseinugilea: Aitor Valdecantos Martínez de Lecea. Su-etxea: Valecea Pir, S.L. (Berantevilla, Araba).

23:30

KONTZERTUA.  Foruen plaza. 23:30, Mafalda. 00:30, Koma.

DANTZALDIA.  Gazteluko plaza. Super Hollywood orkestra. 02:30 arte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Isaura orkestra. 01:30 arte.

23:45

KONTZERTUA. Compañía plaza. Systema Solar.

24:00

MUSIKA KALEAN. Irteera Udaletxe plazatik.





8 ASTELEHENA

Baionaren eta Hiri Senidetuen Eguna

06:45

DIANAK. San Saturnino kaletik.

08:00

ZEZEN-ENTZIERROA. Festetako bigarrena.

09:30

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.

Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

11:30

BIRJOLASTU. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

HAUEK FESTAK HAUEK! Askatasun plaza.

Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.

12:00

MUSIKA KALEAN.

Irteera San Gregorio kaletik, Labrit frontoitik, Descalzos kaletik, Zezen-plazatik, Navarrerria eta San Nikolas kaleetatik.

JOTA-KANTALDIA.

Sarasate pasealekua. Roberto Urrutia eta Corrientes Navarras.

HERRI-KIROLAK.

Foruen plaza. Nafarroako Trontzalarien Txapelketa (1. kategoria). Nafarroako Trontzalarien Txapelketa (emakumeak). Trontza-eta aizkora-erakustaldia altueran (Patxi Larretxea). Trontza-proba (abiaduraz).

13:00

MUSIKA-BANDAK.

Gurutzeko plaza. Harmonie Bayonnaise (Baiona, Frantzia).

17:30

PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDEN DESFILEA. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 20:30 arte.

18:00

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 20:30 arte.

MUSIKA KALEAN. Udaletxe plaza.

18:30

ZEZEN-FERIAREN BIGARREN ZEZENKETA. Zezen-plaza.

19:00

DANTZALDIA.

Gazteluko plaza. La Fania Perfect orkestra. 20:50 arte.

BERTSO-SAIOA. Sarasate pasealekua. Maialen Lujanbio, Julio Soto, Xabat Illarregi eta Sustrai Colina. Aurkezlea: Ainhoa Larretxea. 20:00ak arte.

20:00

KONTZERTUA. Compañía plaza. SwingFermin. Iruña Swing, DJ Sugar Drew-rekin.

TXOTXONGILOAK.

Askatasun Plaza. *Esperantxi, itxaropenaren lorea.* Bagabiga antzerki-taldea (euskaraz).

GAZTE EREMUA. Foruen plaza. Atrakzioak: umore horia, erraztatzailea eta gladiadore-borroka. Lantegia material birziklatuekin. Hiri-dantzako masterclassa. 12 - 17 urte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Impacto taldea. 22:00ak arte.

MUSIKA KALEAN. Irteera San Nikolas kaletik.

21:00

DANTZALDIA.

Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

ANTZERKIA KALEAN.

Karlos III.aren etorb. *Psycodelia.* Troula konpainia (Pontevedra).

21:45

ZEZENSUZKOA. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

SANFERMINETAKO EGILE-SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XX. LEHIAKETA.

Ziudadela. *Etincelles de feu et de Fêtes - Su eta festa txinpartak.* Diseinugilea: Frédérique Favorin-Marmajou. Su-etxea: Sarl H et R Pyrotechnie Marmajou (Dax, Frantzia).

23:30

KONTZERTUA. Foruen plaza. 23:30, Los Lucians. 00:30, Amaya Arboniés.

DANTZALDIA.

Gazteluko plaza. La Fania Perfect orkestra. 02:30 arte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Impacto taldea. 01:30 arte.

23:45

KONTZERTUA. Compañía plaza. Paquito D'Rivera septet. Caribierian Tour 2019.



9 ASTEARTEA

06:45

DIANAK. Txapitela kaletik abiatuta.

08:00

ZEZEN-ENTZIERROA. Festetako hirugarrena.

09:30

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.

Konpartsaren irteera
Ezpeletaren jauregitik
(Kale Nagusia).

11:30

BIRJOLASTU. Taconera.
Larraina parkea.
Jolasgunea birziklatutako
osagaiekin, PAI
konpainiaren eskutik.
14:00ak arte.

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza.
Haurrendako jarduerak.
14:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna
parkeko lubanarroak. Kirol
eta aisiako gunea, kirol-
federazioekin elkarlanean.
8 - 14 urte (orientagarria).
14:00ak arte.

12:00

MUSIKA KALEAN. Irteera
Udaletxe plazatik.

JOTA-KANTALDIA.

Sarasate pasealekua. La
Ribera Canta.

HERRI-KIROLAK.  Foruen
plaza. Nafarroako Ingude-
jasotzaileen Txapelketa.
Motozerralarien XXI.

San Fermin Saria. Zama-
jasotzaileen Txapelketa.

13:00

MUSIKA-BANDAK.

Gurutzeko plaza. Oibarko
Banda.

TXISTULARIEN ALARDEA.

SAN JOSE PLAZA.

TXISTULARIEN 60.

ALARDE-KONTZERTUA.

*Atzokoaren isladak,
etorkizuneko indarra.
3 Zulotan, 3tan hoge.*

17:30

**ZALDUNEN, MANDAKOEN
ETA MUSIKA-BANDAREN
DESFILEA.** Udaletxe

plazatik Zezen-plazaraino.

BIRJOLASTU. Taconera.

Larraina parkea.
Jolasgunea birziklatutako
osagaiekin, PAI
konpainiaren eskutik.
20:30 arte.

18:00

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza.
Haurrendako jarduerak.
21:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna
parkeko lubanarroak. Kirol
eta aisiako gunea, kirol-
federazioekin elkarlanean.
8 - 14 urte (orientagarria).
20:30 arte.

MUSIKA KALEAN. Jota-
erronda. Udaletxe plaza.

18:30

ZEZEN-FERIAREN

HIRUGARREN

ZEZENKETA. Zezen-plaza.

19:00

DANTZALDIA.  Gazteluko
plaza. DJ Txema. 20:50
arte.

DANTZAK. Sarasate
pasealekua. Duguna-
lruñeko Dantzariak
20:00ak arte.

MUSIKA KALEAN. Irteera
San Saturnino eta Estafeta
Kaleetatik.

20:00

KONTZERTUA. Compañía
plaza. Eburne Arizu.

Fricciones.

TXOTXONGILOAK.

Askatasun plaza. *Etxe
sorginduen misterioa.*
Bagabiga antzerki-taldea
(euskaraz).

GAZTE EREMUA.  Foruen
plaza. Atrakzioak: giza
futbolina, erraztatzailea
eta Wipeout Apar-festa.
Karaokea. 12 - 17 urte.

DANTZALDIA. Gurutzeko
plaza. Paraíso orkestra.
22:00ak arte.

21:00

DANTZALDIA. 

Gazteluko plaza. Txistu
eta Gaita.

ANTZERKIA KALEAN.

Karlos III.aren etorb. *El
mundo del circo.* Troula
konpainia (Pontevedra).

21:45

ZEZENSUZKOA. San
Domingo kalea, Udaletxe
plaza eta Kale Berria.

23:00

**SANFERMINETAKO
EGILE-SU ARTIFIZIALEN
NAZIOARTEKO XX.
LEHIAKETA.**

Ziudadela. *Gau magikoa
ziudadelan.* Diseinugilea:
Leopoldo Ferrández
Peñalver. Su-etxea:
Fuegos Artificiales
Hermanos Ferrández S.L.
(Beniel, Murtzia).

23:30

KONTZERTUA.  Foruen
plaza. DJ Txurru.

DANTZALDIA. 

Gazteluko plaza. Dos
pájaros y un trío cantan
por Sabina y Serrat. 02:30
arte.

DANTZALDIA. Gurutzeko
plaza. Paraíso orkestra.
01:30 arte.

23:45

KONTZERTUA. Compañía
plaza. Ramon Valle
Quartet featuring Perico
Sambet.

24:00

MUSIKA KALEAN. Irteera
Estafeta kaletik eta
Udaletxe plazatik.



10 ASTEAZKENA

Haurren eguna

06:45

DIANAK. Merkatuko kaletik abiatuta.

08:00

ZEZEN-ENTZIERROA. Festetako laugarrena.

09:30

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.

Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

11:00

HAURREN LORE-ESKAINZA SAN FERMINI. Aduanako zokoa.

11:30

BIRJOLASTU. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.

12:00

JOTA-KANTALDIA.

Sarasate pasealekua. Alegría Ribera.

HERRI-KIROLAK. 

Foruen plaza. Nafarroako 3. mailako aizkolarien txapelketa (kanporaketa). Nafarroako Trontzalarien Txapelketa (kadeteak). Proba konbinatuen erakustaldia (kimuak).

MUSIKA KALEAN.

Irteera Karlos III.aren etorbideetik, Descalzos kaletik, Autobus-geltoki zaharretik eta San Nikolas eta Navarrerria kaleetatik.

13:00

MUSIKA-BANDAK.

Gurutzeko plaza. Zizurreko banda.

HAURREN DANTZA JAIALDIA. Oko plaza.

17:30

PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDEN DESFILEA. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 20:30 arte.

18:00

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 20:30 arte.

MUSIKA KALEAN. Jota-erronda. Karlos III.aren etorb.

18:30

ZEZEN-FERIAREN LAUGARREN ZEZENKETA. Zezen-plaza.

19:00

DANTZALDIA.  Gazteluko plaza. Estrella Central orkestra. 20:50 arte.

HAURREN DANTZA

DANTZALDIA. Sarasate pasealekua. *Girotu plaza.* 20:00ak arte.

20:00

KONTZERTUA. Compañía plaza. Javier López Jaso & Marcelo Escrich Quartet. *Aporía.*

TXOTXONGILOAK.

Askatasun plaza. *Gorgorito contra los fantasmas.* Maese Villarejoren txotxongiloak (gaztelaniaz).

GAZTE EREMUA.  Foruen

plaza. Atrakzioak: kirol ginkana: arku-tiroa, saskiak eta ateak. Tatuaje-lantegia. Zunbalain + Dj's. 12 - 17 urte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Dolche orkestra. 22:00ak arte.

21:00

DANTZALDIA.  Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

ANTZERKIA KALEAN.

Karlos III.aren etorb. *Menuda banda parranda.* Almozandia konpainia (Zaragoza).

21:45

ZEZENSUZKOA. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

SANFERMINETAKO EGILE-SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XX. LEHIAKETA.

Ziudadela. *Magia di fuochi - Suzko magia.* Diseinugilea: Cinzia Parente. Su-etxea: Parente Events (Melara, Rovigo, Italia).

23:30

KONTZERTUA.  Foruen plaza. 23:30, DJ Josu Rodríguez.

DANTZALDIA. 

Gazteluko plaza. Estrella Central orkestra. 02:30 arte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Dolche orkestra. 01:30 arte.

23:45

KONTZERTUA. Compañía plaza. Albert Sanz eta Javier Colina. *Sampa.*



11 OSTEGUNA

06:45

DIANAK. Zapateria kaletik abiatuta.

08:00

ZEZEN-ENTZIERROA. Festetako bosgarrena.

09:30

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.

Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

11:30

BIRJOLASTU. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.

12:00

JOTA-KANTALDIA.

Sarasate pasealekua. Voces Riberas.

HERRI-KIROLAK. ♿

Foruen plaza. Nafarroako txinga-erute txapelketa (gizonak) Nafarroako txinga-erute txapelketa (emakumeak) Aizkora-erakustaldia (kana-enborra eta zutikako ebaketa). Aimar Irigoien harri-jasotzailearen erakustaldia.

MUSIKA KALEAN. Irteera Udaletxe plazatik.

13:00

MUSIKA-BANDAK.

Gurutzeko plaza. Aranguren Ibarreko banda.

17:30

PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDEN DESFILEA. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 20:30 arte.

18:00

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 20:30 arte.

MUSIKA KALEAN. Jota-erronda. Karlos III.aren etorb.

18:30

ZEZEN-FERIAREN BOSGARREN

ZEZENKETA. Zezen-plaza.

19:00

DANTZALDIA. ♿

Gazteluko plaza. Jamaica Show orkestra. 20:50 arte. **HAURRENDAKO IKUSKIZUNA.** Sarasate pasealekua. *¡¡Que salte la plaza!!*. Xip Xap konpainia. 20:00ak arte.

MUSIKA KALEAN. Irteera Estafeta eta Descalzos kaleetatik.

20:00

KONTZERTUA. Compañía plaza. Ysi Kalima. **TXOTXONGILOAK.** Askatasun plaza. *Gorgorito contra los canibales*. Maese Villarejoren txotxongiloak (gaztelaniaz).

GAZTE EREMUA. ♿

Foruen plaza. Atrakzioak eta zirku-jarduerak. Alkoholik gabeko koktel-lantegia. Dantza latinoen masterclassa. 12 - 17 urte. **DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Azar orkestra. 22:00ak arte.

21:00

DANTZALDIA. ♿

Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

ANTZERKIA KALEAN.

Karlos III.aren etorb. *Burlesque*. Kull de Sac konpainia (Valladolid).

21:45

ZEZENSUZKOA. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

SANFERMINETAKO EGILE-SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XX. LEHIAKETA.

Ziudadela. *Zoloriscos*. Diseinugilea: Manuel Osuna Oliva. Su-etxea: García (Lliçà d'Amunt, Bartzelona).

23:30

KONTZERTUA. ♿ Foruen plaza. 23:30, Hagoan. 00:30, Huntza.

DANTZALDIA. ♿

Gazteluko plaza. Jamaica Show orkestra. 02:30 arte. **DANTZALDIA.** Gurutzeko plaza. Azar orkestra. 01:30 arte.

23:45

KONTZERTUA. Compañía plaza. Michele Hendricks Quintet.

24:00

MUSIKA KALEAN. Irteera Kale Nagusitik.



12 OSTIRALA

Zaharren eguna

06:45

DIANAK. San Saturnino kaletik.

08:00

ZEZEN-ENTZIERROA. Festetako seigarrena.

09:30

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.

Konpartsaren irteera Ezpeletaren jauregitik (Kale Nagusia).

10:45

ZAHARRENDAKO MEZA. San Fermin kapera.

11:30

BIRJOLASTU. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.

12:00

JOTA-KANTALDIA.

Sarasate pasealekua. Zaharren eguna. Yoar eta Jus la Rocha errondailak.

HERRI-KIROLAK. 

Foruen plaza. Sokatirako 4 x 4 San Fermin Txapelketa mistoa. Aizkolarien erakustaldia (emakumeak). Kañamares anaien erakustaldia (taulak egitea eta enborrak aitzurraz moztea).

MUSIKA KALEAN. Irteera Descalzos kaletik, San Frantzisko plazatik, Navarrerria plazatik eta Zezen-plazatik.

13:00

MUSIKA-BANDAK.

Gurutzeko plaza. Buñuelgo musika banda.

17:30

PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDEN DESFILEA. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 20:30 arte.

18:00

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 20:30 arte.

MUSIKA KALEAN. Irteera Txapitela kaletik.

18:30

ZEZEN-FERIAREN SEIGARRIN ZEZENKETA. Zezen-plaza.

19:00

DANTZALDIA. 

Gazteluko plaza. Nueva Alaska orkestra. 20:50 arte.

DANTZA. Sarasate pasealekua. Makaia Dantza Taldea (Faltzes). 20:00ak arte.

20:00

KONTZERTUA. Compañía plaza. Las Hijas de la Cumbia.

TXOTXONGILOAK.

Askatasun plaza. *Ipuin magikoak.* Bihar taldea (euskaraz).

GAZTE EREMUA. 

Foruen plaza. Atrakzioak: mega-erraztatzailea eta herri-kirolak. Fotoreto. #Andonikmugitzennau. 12 - 17 urte.

20:30

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Los Sirex. 22:00ak arte.

21:00

DANTZALDIA. 

Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

ANTZERKIA KALEAN.

Karlos III.aren etorb. *Rum Rum Trasto Karts.* Xip Xap Teatre konpainia (Lleida).

21:45

ZEZENSUZKOA. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

SANFERMINETAKO EGILE-SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XX. LEHIAKETA.

ZIUDADELA. *Enigmatic vibes - Bibrazio enigmatikoak.* Diseinugilea: Peter Shishkov. Su-etxea: Enigma Firework's Team (Sofia, Bulgaria).

23:30

KONTZERTUA.  Foruen plaza. 23:30, La Furia. 00:30, Ajax y Prok.

DANTZALDIA. 

Gazteluko plaza. Nueva Alaska orkestra. 02:30 arte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Disco Músic. 01:30 arte.

23:45

KONTZERTUA. Compañía plaza. Miss Bolivia.

24:00

MUSIKA KALEAN. Irteera Nafarroako Museotik (San Domingo kalea).



13 LARUNBATA

06:45

DIANAK. Kale Berritik abiatuta.

08:00

ZEZEN-ENTZIERROA. Festetako zazpigarrena.

09:30

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.

Konpartsaren irteera, autobus-geltokitik.

11:00

JAUZIEN JAIA. Gazteluko plaza. Luzaide eta Baxenabarreko jauziak.

11:30

BIRJOLASTU. Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.

MUSIKA KALEAN. Irteera Udaletxe plazatik.

12:00

JOTA-KANTALDIA.

Sarasate pasealekua. Otero del Cid (Ateca, Zaragoza).

HERRI-KIROLAK. ♿

Foruen plaza. Nafarroako Harrijasotzaileen Txapelketa. Zama-jaurtitzaileren erakustaldia. Motozerralarien erakustaldia (zurezko irudiak).

MUSIKA KALEAN. Irteera Descalzos kaletik eta Udaletxe plazatik.

13:00

MUSIKA-BANDAK.

Gurutzeko plaza. Unión Musical Puentesina banda (Gares).

17:30

PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDEN

DESFILEA. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. **BIRJOLASTU.** Taconera. Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 20:30 arte.

18:00

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 20:30 arte.

18:30

ZEZEN-FERIAREN ZAZPIGARREN

ZEZENKETA. Zezen-plaza.

19:00

DANTZALDIA. ♿

Gazteluko plaza. En EsenZia orkestra. 20:50 arte.

BERTSO-SAIOA. Sarasate pasealekua. *Ez da kasualitatea.* bertso- eta musika-saioa. Bertsolariak: Saioa Alkaiza, Sarai Robles, Uxue Alberdi eta Miren Amuriza. Aurkezlea: Maialen Belarra. Musikariak: Ixak Arruti eta Gari Otamendi. 20:00ak arte.

20:00

KONTZERTUA. Compañía plaza. R de Rumba. World, jazz & funk saioa.

TXOTXONGILOAK.

Askatasun plaza. *Carolino en el rapto de la princesa.*

Bihar taldea (gaztelaniaz)

GAZTE EREMUA. ♿ Foruen plaza. Atrakzioak: saskiak, gladiadore-borroka eta umore horiko zaldaina Apar-festa. DJ Andu + ZumbAndu. 12 - 17 urte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Meteoro 2.0 orkestra. 22:00ak arte.

21:00

DANTZALDIA. ♿

Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

ANTZERKIA KALEAN.

Karlos III.aren etorb. *Pasacalles La Deli.* La Societé de la Mouffette konpainia (Madril)

21:45

ZEZENSUZKOA. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

23:00

SANFERMINETAKO EGILE-SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XX. LEHIAKETA.

Ziudadela. *Ziudadela sugarretan.* Diseinugilea: Miguel Ángel Beltrán Sevilla. Su-etxea: Vulcano S.L. (Villarejo de Salvanes, Madril).

23:30

KONTZERTUA. ♿ Foruen plaza. 23:30, La Ira. 00:30, Gatibu.

DANTZALDIA. ♿

Gazteluko plaza. En EsenZia orkestra. 02:30 arte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Meteoro 2.0 orkestra. 01:30 arte.

23:45

KONTZERTUA. Compañía plaza. London Afrobeat Collective.



14 IGANDEA

Gaixoa ni!

06:45

DIANAK. Merkatuko kaletik abiatuta.

08:00

ZEZEN-ENTZIERROA.

Zortzigarrena, festetako azkena.

09:30

ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK.

Konpartsaren irteera autobus-geltokitik.

10:45

SAN FERMINEN

ZORTZIURRENA. Udaletxe plaza. Udalbatza San Lorentzo parrokiara joanen da, elizkizunean parte hartzera. Bertan Katedraleko Musika Kapera eta ganbera-orkestra arituko dira.

11:30

BIRJOLASTU. Taconera.

Larraina parkea. Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 14:00ak arte.

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 14:00ak arte.

KIROL ARI. 📺 Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 14:00ak arte.

12:00

MUSIKA KALEAN. Irteera Karlos III.aren etorbideetik, Descalzos kaletik eta Udaletxe plazatik.

JOTA-KANTALDIA.

Sarasate pasealekua. Voces Navarras.

HERRI-KIROLAK. Foruen plaza. Nafarroako aizkolarien binakako Txapelketa. Nafarroako gurdi-jasotzaileen Txapelketa. Aimar Irigoyen eta Virginia Finol harri-jasotzaileen erakustaldia.

13:00

MUSIKA-BANDAK.

Gurutzeko plaza. San Adriango musika banda.

AGURRA ERRALDOI

ETA BURUHANDIEN

KONPARTSARI. Udaletxe plaza.

17:30

PLAZAKO ZALDUNEN, MANDAKOEN ETA MUSIKA-BANDEN

DESFILEA. Udaletxe plazatik Zezen-plazaraino. **BIRJOLASTU.** Taconera.

Larraina parkea.

Jolasgunea birziklatutako osagaiekin, PAI konpainiaren eskutik. 20:30 arte.

18:00

HAUEK FESTAK HAUEK!

Askatasun plaza. Haurrendako jarduerak. 21:00ak arte.

KIROL ARI. Media Luna parkeko lubanarroak. Kirol eta aisiako gunea, kirol-federazioekin elkarlanean. 8 - 14 urte (orientagarria). 20:30 arte.

MUSIKA KALEAN. Jota-erronda. Udaletxe plaza.

18:30

KULTUREN KALEJIRA

2019. Aniztasuna kolore bizian. Kale Nagusitik Gazteluko plazaraino.

ZEZEN-FERIAREN

ZORTZIGARREN

ZEZENKETA, FESTETAKO

AZKENA. Zezen-plaza.

19:00

DANTZALDIA. 📺 Gazteluko plaza. Magia Negra orkestra. 20:50 arte.

DANTZA. Sarasate pasealekua. Rocamador Dantza Taldea (Zangoza). 20:00ak arte.

20:00

TXOTXONGILOAK.

Askatasun plaza. *El zapatero remendón.*

La Otra Compañía, (gaztelaniaz).

GAZTE EREMUA. 📺

Foruen plaza. Atrakzioak: Wipeout erraldoia eta ur-jolasak. SanFercomedy. Fiesta Holy. Javier Erro. 12 - 17 urte.

DANTZALDIA. Gurutzeko plaza. Elegancia Mexicana mariatxia. 22:00ak arte.

20:30

MUSIKA KALEAN.

Karlos III.aren etorbidea (Entzierroaren monumentua).

21:00

DANTZALDIA. 📺

Gazteluko plaza. Txistu eta Gaita.

21:45

ZEZENSUZKOA. San Domingo kalea, Udaletxe plaza eta Kale Berria.

22:00

MUSIKA KALEAN. Irteera

San Frantzisko plazatik eta bukaera Gazteluko plazan.

23:00

SANFERMINETAKO

EGILE-SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO XX.

LEHIAKETA.


Ziudadela. *Étoiles filantes - Izar iheskorak.*

Diseinugilea: Francois Philibert. Su-etxea: Kuma Fireworks Corp. (Montreal, Kanada).

24:00

SANFERMINEN AMAIERA.

Udaletxe plaza. Gaixoa ni!



ZEZEN FERIA

UZTAILAK 5-14

GANADUTEGIAK ETA TOREATZAILEAK

UZTAILAK 5, OSTIRALA

20:00

Sei zezenko, **DE PINCHA ganadutegiarenak**. Lodosa (Navarroa).
Dibisa: berde eta gorria. Xakia: urtxulua bi belarrietan. Nobilleroak:
FRANCISCO DE MANUEL
ANTONIO GRANDE
DIEGO SAN ROMÁN

UZTAILAK 6, LARUNBATA

18:30

Sei zezen, adar kamustudunak, **EL CAPEA ganadutegiarenak**. San Pelayo de Guareña (Salamanca). Dibisa: zuri, gorrimin eta horia. Xakia: akatsa bi belarrien behealdean. Burtzikariak:
PABLO HERMOSO DE MENDOZA
LEONARDO HERNÁNDEZ
ROBERTO ARMENDARIZ

UZTAILAK 7, IGANDEA

18:30

Sei zezen, **PUERTO DE SAN LORENZO**renak. Tamames (Salamanca).
Dibisa: gorri eta horia. Xakia: bi belarriak osorik. Toreatzaileak:
EMILIO DE JUSTO
ALBERTO LÓPEZ SIMÓN
GINÉS MARÍN

UZTAILAK 8, ASTELEHENA

18:30

Sei zezen, **HROS. DE JOSÉ CEBADA GAGO**renak. Medina Sidonia (Cádiz).
Dibisa: gorri eta berdea. Xakia: uztaia bi belarrietan. Toreatzaileak:
MANUEL ESCRIBANO
RUBÉN PINAR
JUAN DEL ÁLAMO

UZTAILAK 9, ASTEARTEA

18:30

Sei zezen, **JOSÉ ESCOLAR GIL** jaunarenak, Lazahíta (Ávila). Dibisa: zuria eta gorria. Xakia: urtxulua bi belarrietan. Toreatzaileak:
FERNANDO ROBLEÑO
JAVIER CASTAÑO
PEPE MORAL

UZTAILAK 10, ASTEAZKENA

18:30

Sei zezen, **JANDILLA**renak. Mérida (Badajoz). Dibisa: urdina. Xakia: urtxulua bi belarrietan. Toreatzaileak:
DIEGO URDIALES
SEBASTIÁN CASTELLA
ANDRÉS ROCA REY

UZTAILAK 11, OSTEGUNA

18:30

Sei zezen, **VICTORIANO DEL RÍO CORTÉS** jaunarenak. Guadalix de la Sierra (Madrid). Dibisa: beltza eta horia. Xakia: akatsa bi belarrietan. Toreatzaileak:
ANTONIO FERRERA
EL JULI
PABLO AGUADO

UZTAILAK 12, OSTIRALA

18:30

Sei zezen, **NÚÑEZ DEL CUVILLO**renak. Vejer de la Frontera (Cádiz). Dibisa: zuria, berdea eta gorria. Xakia: Laurdendua eskuineko belarrian, eta laietegia ezkerrekoan. Toreatzaileak:
MIGUEL ÁNGEL PERERA
CAYETANO
ANDRÉS ROCA REY

UZTAILAK 13, LARUNBATA

18:30

Sei zezen, **LA PALMOSILLA**renak. Tarifa (Cádiz). Dibisa: urdina, urdin argia eta gorria. Xakia: akatsa eskuineko belarrian, eta ezkerrekoa osorik. Toreatzaileak:
JOSÉ GARRIDO
LUIS DAVID
JAVIER MARÍN

UZTAILAK 14, IGANDEA

18:30

Sei zezen, **MIURA**renak. Lora del Río (Sevilla). Dibisa: berdea eta gorrimina. Xakia: kolpez kamustua eskuinekoa, eta garranga eta akatsa ezkerrekoa. Toreatzaileak:
RAFAELILLO
OCTAVIO CHACÓN
JUAN LEAL



ENTZIERROAN KORRIKA EGITEKO

Oharrak

ENTZIERROAREN IBILBIDEA

San Domingo kalea, Udaletxe plaza, Mercaderes kalea, Estafeta kalea, Telefónica, Kailejoia eta Zezen-plaza.

ARRISKUA

Entzierroa esperientzia paregabea da ikusleendako eta, areago, zezenen aitzinetik korrika egiten dutenendako. Arriskua eta gaitasun fisikoa dira ikuskizun honen ezaugarri nagusiak.

INFORMAZIOA

Entzierroan korrika egin nahi eta eskarmentu gutxi duten korrikalariak lasterketa arriskutsu honen ezaugarrien berri jakin behar dute. Halaber, ezagutu beharko dituzte beren eta aldamenekoen segurtasunaren alde hartu beharreko babes-neurriak ere.

PRESTAKUNTZA FISIKOA

Entzierroan ezin du edozeinek parte hartu: beharrezkoak dira sosegua, erreflexuak eta prestaketa fisiko ezin hobea. Inork ez du parte hartu behar baldintza horiek bete ezean. Izan ere, arriskua handia da.

TARTE BAT BAINO EZ

Ezinezkoa da entzierroaren bide osoa egitea; lasterkariek zein tarte jo egokiago eta hori hautatu behar dute bertan korrika egiteko.

ADINEZ NAGUSIAK

18 urtetik beherakoek debeku dute korrika egitea.

EKIPAMENDU EGOKIA

Ezinbestekoa da, norbere segurtasunaren hobe beharrez, jantzi eta oinetako egokiak eramatea.

TRABARIK EZ

Oztopo izan daitekeen objekturik gabe egin behar da lasterka, hots, bizkar-zorro, kamera, telefono mugikor eta halakorik gabe.

MUGA-ORDUA

Korrikalariak goizeko 07:30ak baino lehenago sartu behar dute ibilbidera. Eta uztailaren 7an, larunbatean eta igandean, 07:15ak baino lehen.

Korrikalariak Iruñeko Udalak ezarriko dituen tokietatik eta orduetan sartuko dira ibilbidera. Korrika egin nahi dutenek ezin izanen dute ibilbidera sartu 07:30ak jo eta gero. Sarbideak kontrolatzen dituzten Polizia-agintariak ordu hori baino lehenago itxi ahalko dituzte horiek, baldin eta jotzen badute korrikalarien kopurua mugara iritsi dela dagoen espazio horretarako.

Udaltzaingoak ibilbidean sartzeko erraztasuna emanen die arrazoiren bat dela medio ibilbidean sartu behar dutenei.

TOKIKO POLIZIA

Entzierroan korrika egin nahi dutenek egon beharko dute Tokiko Poliziak osatutako hesiek mugatzen dituzten tarteetan, eta zehatz-mehatz bete beharko dituzte udaltzainen aginduak, parte-hartzaile guztien segurtasunaren hobe beharrez.

BAZTERRAK ETA ATARIAK

Debeku da, hagitz arriskutsua baita, ibilbideko bazter, angelu itsu, atari edo establezimenduetan babes hartzea zezenak hartu aurretik.

AURRERA ZUZEN

Aurrera zuzen egin behar da korrika, zezenen eta beste korrikalarien aitzin gurutatzatu edo gelditu gabe.

EZ ZEZENIK UKITU

Zezenei ez zaie inon eta inolaz ere deitu behar, ezta haien arreta bereganatu eta haiek ukitu ere.

AURREIKUSI NONDIK IRTENGO ZAREN

Korrikalariak aurrez erabaki behar dute non atera entzierrotik, eta ibilbidearen alboetatik egingo dute. Ez da supituki gelditu behar, ezta hesi, atari edo antzeko batean geratu ere, ezen, hala egiten badute, lasterketa bera eta beste korrikalariak babes hartzeko aukera oztopatuko baitituzte.

HONDARRA LIBRE UTZI

Zezen-plazara sartu ahala, korrikalariak ahal den azkarren hartuko dute babes hesiaren atzean, eta hesia libre utziko diete atzetik datozenei. Ez diete zezenei deituko, eta ez dira geldituko plazako hondarrean, unaiek eta kapadunek beren lana egin ahal izan dezaten.



IRUÑEKO ERRALDOI ETA BURUHANDIEN

Konpartsaren ibilbideak

UZTAILAK 6, LARUNBATA

IRTEERA: AUTOBUS-GELTOKIA

17:00

Bake plaza, Yanguas y Miranda, Gartzia Ximenez, Tuter, Oliveto Kondea, Vianako Printzearen plaza, Antso Nagusia, Gartzia Ximenez, García Castañón, Sarasate, San Ignazio, Bergamin, Arrieta, Karlos III.a, Gazteluko plaza, Sarasate, Gipuzkoako etorb., Aduanako zokoa, Errekoleten plaza, Errekoleten kalea, O-ko Andre Maria plaza, Sanduandia, San Lorentzo, Kale Nagusia, Ezpeletaren jauregia.

UZTAILAK 7, IGANDEA

IRTEERA: EZPELETAREN JAUREGIA

09:30

Kale Nagusia, San Saturnino kalea eta Udaletxe plaza. Bertatik Konpartsak Udalbatza lagunduko du Mercaderes eta Curia kaleetan barna, Kabildoaren bila, Katedraleraino. Itzulera: Curia, Mercaderes, Udaletxe plaza, San Saturnino kalea eta Kale Nagusia, San Lorentzo elizaraino. Bertatik, San Ferminen prozesioa abiatuko da kale hauetan barna: Taconera, San Anton, Zapateria, Calceteros, Udaletxe plaza, San Saturnino kalea eta Kale Nagusia (atsedenaldia). Elizkizunak amaitutakoan, Kabildoa eta Udalbatza lagunduko ditu Katedraleraino, kale hauetan barna: Kale Nagusia, San Saturnino, Udaletxe plaza, Mercaderes eta Curia kalea. Katedralera iristean, Konpartsak bertako atarian dantzatuko du. Udalbatza Curia eta Mercaderes kaleetan eta Udaletxe plazan barna itzuliko da Udaletxera. Gero, Konpartsa Ezpeletaren jauregirantz abiatuko da San Saturnino kalean eta Kale Nagusian barna.

UZTAILAK 8, ASTELEHENA

IRTEERA: EZPELETAREN JAUREGIA

09:30

Kale Nagusia, San Saturnino, Udaletxe plaza, Mercaderes, Estafeta, Telleria, San Agustin, Joan Labritekoa eta Andre Maria Erreginaren plaza (atsedenaldia). Merced, Labrit Jaitsiera, Caldereria, Mercaderes, Calceteros, Udaletxe plaza, Kale Berria, San Frantzisko plaza, San Frantzisko, Eslava, Kale Nagusia, Ezpeletaren Jauregia.

UZTAILAK 9, ASTEARTEA

IRTEERA: EZPELETAREN JAUREGIA

09:30

Kale Nagusia, Eslava, Jarauta, San Saturnino, Udaletxe plaza, Mercaderes, Mañueta, Jauregiko Aldapa, Maiatzaren Bia, Carmen, Navarrería eta San Jose plaza (atsedenaldia). Curia, Mercaderes, Txapitela, Gazteluko plaza, Sarasate, Comedias, San Nikolas, San Nikolas plaza, San Migel, San Frantzisko plaza, Eslava, Kale Nagusia, Ezpeletaren Jauregia.

UZTAILAK 10, ASTEAZKENA

IRTEERA: EZPELETAREN JAUREGIA

09:30

Kale Nagusia, San Frantzisko kalea, San Frantzisko plaza, Kontseiluko plaza, Zapateria,

Pozo Blanco, San Nikolas, San Nikolas plaza, San Gregorio, Ziadadela, Aduanako zokoa, San Lorentzo eliza eta Errekoleten plaza (atsedenaldia).

Kale Nagusia, Eslava, San Frantzisko, Campana, San Saturnino, Udaletxe plaza, Mercaderes, Txapitela, Gazteluko plaza, Karlos III.a (Gaiarre antzokiraino), Gazteluko plaza, Sarasate, San Migel, San Frantzisko Plaza, Eslava, Kale Nagusia, Ezpeletaren Jauregia.

UZTAILAK 11, OSTEAGUNA

IRTEERA: EZPELETAREN JAUREGIA

09:30

Kale Nagusia, Eslava, Jarauta, San Saturnino, Udaletxe plaza, Zapateria, Pozo Blanco, San Nikolas, San Migel, San Frantzisko plaza, San Frantzisko, San Lorentzo eta Descalzos (atsedenaldia). Descalzos, Jarauta, Eslava, Kale Nagusia, San Saturnino, Udaletxe plaza, Mercaderes, Calceteros, Udaletxe plaza, Kale Berria, San Frantzisko plaza, Kale Berria, Aduanako Zokoa, Errekoleten kalea, Kale Nagusia, Ezpeletaren Jauregia.

UZTAILAK 12, OSTIRALA

IRTEERA: EZPELETAREN JAUREGIA

09:30

Kale Nagusia, Errekoleten kalea, O-ko Andre Maria plaza, Sanduandia, Jarauta, Eslava, Kale Nagusia, San Saturnino, Udaletxe plaza, Kale Berria eta San Frantzisko plaza (atsedenaldia). San Frantzisko, Ansoleaga, Udaletxe plaza, Mercaderes, Estafeta, Amaia, Orreaga, Gartzia Ximenez, Tuter, Oliveto Kondea, Bake plaza eta Autobus-geltokia.

UZTAILAK 13, LARUNBATA

IRTEERA: AUTOBUS-GELTOKIA

09:30

Foruen plaza, Gaztelugibel eta Erruki-etxea, Foruen plaza, Zaragozako etorb., Leire, Bergamin, Arrieta, Amaia, Leire eta Aralar (atsedenaldia Gurutze Gorriaren egoitzan). Aralar, Teobaldoen kalea, Erriberri, San Fermin, Bergamin, Galizia etorb., Tafalla, Zangoza, San Fermin, Galizia etorb. eta Foruen plaza (Autobus-geltokia).

UZTAILAK 14, IGANDEA

IRTEERA: AUTOBUS-GELTOKIA

09:30

Bake plaza, Yanguas y Miranda, Gartzia Ximenez, García Castañón, Sarasate, Comedias, Pozo Blanco, Zapateria eta Udaletxe plaza. Hortik abiatuta, Konpartsak Udalbatza lagunduko du, San Saturnino kalean eta Kale Nagusian barna, San Lorentzo elizaraino. Han San Ferminen Zortziurrena ospatuko da. Atsedenaldia Kale Nagusian. Ondoren, Konpartsak Udalbatza lagunduko du Kale Nagusian eta San Saturnino kalean barna, Udaletxeraino. Dantzak, Udalbatzaren eta Hiriaren ohoretan.

BESTE GUNE BATZUK

KONDESTABLEAREN JAUREGIA

EHUN URTE

LA PAMPLONESAREKIN.

Beheko solairuko patioa eta Areto gotikoa

APIRILAK 30-IRAILAK 8

SAN FERMIN 2019

KARTEL LEHIAKETAREN FINALISTAK.

Ezkaratza

EKAINAK 27-ABUZTUAK 25

LUIS AZANZA.

SF UNIBERTSOA

1. aretoa

EKAINAK 28-ABUZTUAK 25

UZTAILAK 8, 10, 11, 12, 13
ETA 14.

ORDUTEGIA: 11:00-14:00.

GAYARRE ANTZOKIA

THE HOLE ZERO

Antzerkia, musika, zirkua, kabareta, umore zoroa...

UZTAILAK 4-14

ORDUTEGIA:

UZTAILAK 4, 5, 7, 9, 12 ETA 13:
19:30 ETA 22:30.

UZTAILAK 10 ETA 11: 21:00

UZTAILAK 14: 19:30

UZTAILAK 6 ETA 8: EZ DAGO

FUNTZIORIK.

SARRERAK:

ARETOA (37 €)-PALKOA (30 €)

ANFITEATROA (25 €)

BALUARTE

SAN FERMIN KANTU

ZAHARREN BAZKARIA

UZTAILAK 12

ORDUTEGIA: 14:00

ERAKUSKETA-ARETOA

SARRERAK: HELDUAK 60 €,

HAURRAK 15 €.

SU ETA MUSIKA GAUAK

UZTAILAREN 6TIK

(LARUNBATA) 14RA

(IGANDEA).

22:00-01:00/TERRAZA ETA

ATONDOA (3. SOLAIRUA)

SARRERAK: 18 € (EDARI BAT
BARNE). TALDEAK (GUTXIENEZ

20 SARRERA):15 €. LEIHATILAN

*** 14 urtetik beherakoek**

debeku dute sartzea.

MUSIKA KALEAN

- Gracia Navarra jota-akademia eta -eskola

- Iruñeko gaita-akademia elkarteak

- 'Buñuel Canta' jota-eskola elkarteak

- Baigorriko gaiteroen kultur elkarteak

- Ortzadar Kultur elkarteko fanfarrea

- Ortzadar Kultur elkarteko txistulariak

- Gauerdí txaranga elkarteak

- San Lorentzoko gaiteroen elkarteak

- Ezpelur Iruñeko gaitero dultzaineroen elkarteak

- San Lorentzoko danzanteen elkarteak

- Nafarroako Joten Elkarteak

- Txantreako gaiteroak elkarteak

- Txaranga Jarauta 69 elkarteak

- Bravo maisuaren herri-banda

- Donibaneko gaiteroak

- Andosillako Auroroen Eskola

- Raimundo Lanaski jota-eskola

- Ardanbera fanfarrea

- Elizaga gaiteroak

- San Juan eskolako gaiteroak

- Fraile anai-arrebak

Gaiteroak

- Zarrabete gaiteroak

- Haizeberri dultzaineroak

gaiteroak

- Lagaz Tolosako txistulari taldea

- Muévete, ven y baila

- Galtzagorri txaranga

- Ziripot txaranga

- Nafarroako Xake Federazioa

- Nafarroako Atletismo Federazioa

- Nafarroako Badminton Federazioa

- Nafarroako Saskibaloí Federazioa

- Nafarroako Eskubaloí Federazioa

- Nafarroako Kirol Egokituen Federazioa

- Nafarroako Esgrima Federazioa

- Nafarroako Futbol Federazioa

- Nafarroako Gimnastika Federazioa

- Nafarroako Golf Federazioa

- Nafarroako Herri Kirolen Federazioa

- Nafarroako Hipika Federazioa

- Nafarroako Padel Federazioa

- Nafarroako Padel Federazioa

- Euskal Pilotaren Nafarroako Federazioa

- Nafarroako Piraguismo Federazioa

- Nafarroako Arraun Federazioa

- Nafarroako Taekwondo eta D.A Federazioa

- Nafarroako Arku Tiroko Federazioa

TREN TXIKIAK

Askatasun plazako haur-parkearen eta Merindadeen plazaren artean

UZTAILAK 6: 18:00-21:00

UZTAILAK 7 - 14: 11:30-14:00
ETA 18:00-21:00

ESKORTAK

BISITA GANADUTEGIAK

IKUSTEKO

UZTAILAK 2 - 11: 11:00-13:15

ETA 16:30-20:30

SARREREN PREZIOAK:

HELDUAK, 3,00 €

12 urtetik beherakoak, helduren batek lagunduta, doan

LABRIT PILOTALEKUA

UZTAILAK 6. 17:45.

Eskupilota profesionaleko jaialdia

SAN FERMIN LAU ETA

ERDIKO XXII. TXAPELKETA
PROFESIONALA

UZTAILAK 7. 11:30.

San Fermin Txapelketako Lau eta Erdiko finala

ESKU PILOTA

PROFESIONALEKO XLV.

SAN FERMIN TXAPELKETA

UZTAILAK 7. 17:00.

San Fermin Eskuz Binakako Txapelketa

UZTAILAK 8, 9, 10, 11 ETA 12.

22:15.

San Fermin Eskuz Binakako Txapelketa

UZTAILAK 13. 17:45.

Eskupilota profesionaleko jaialdia. Aspe & Baiko desafioa

UZTAILAK 14. 17:00.

San Fermin Eskuz Binakako Txapelketako finala

SAN FERMIN ESKU

PILOTAKO II. EMAKUME-

MASTER CUP

UZTAILAK 13. 11:30 (SARRERA
LIBREA)

**ERREMONTE
PROFESIONALA:
NAZIOARTEKO
ZIRKUITUAREN
KANPORAKETA**
UZTAILAK 12. 16:30

**PALA PROFESIONALEKO
SAN FERMIN TXAPELKETA**
UZTAILAK 11, 12 ETA 14. 11:30

**“IRUÑEKO PEÑEN
FEDERAZIOA” I. PILOTA
TXAPELKETA**
UZTAILAK 10 ETA 11. 17:30.

NUEVO CASINO PRINCIPAL

ESPARTINEN DANTZALDIA
DATAK: UZTAILAK 7 - 14.
ORDUTEGIA: 08:30 - 09:45.
Sartzeko, gonbidapena behar da.

TACONERA/VISTABELLA

**KUDEAKETA:
NAFARROAKO IKASTOLEN
ELKARTEA. NAFARROA
OINEZEN TXOKOA**

Ohi bezala, Nafarroako Ikastolek, aurten Tuterako Argia Ikastolaren eskutik, euskal kultura -tradizionala nahiz gaur egungoa- oinarri eta euskara ardatz hartuta antolatu dute jardueraprograma. Programaren bidez era askotako jarduera ugari gauzatuko dira, adin guztietako jendeari zuzendutako: Txupinazoa (pantailan); Kiko Pailazoa, Disko Festa eta Lantegiak izanen dira, besteak beste, txikiei laguntzen; Gauargi taldearen dantzaldian EuskarAbentura espedizioan parte hartzen duten gazteak izanen dira gonbidatuak; kantu-saioa Kuxkuxtu iparraldeko txarangaren eskutik; Txutxin Ibañez, Oihan Vega, Baizera, Streetwise, Kukara, Juany Bones, Urtz, Trikidantz, Pimiento Radical, Iruñerria Jamaica, Tdkmp, Trikiteens eta Aizu (Kortatu tributoa), besteak beste, arratsalde-gaueko saioetan; bertsoak, jotak, lantegiak, fanfarreak, dantza-saioak eta askoz gehiago.

ERREKOLETEN PLAZA

**KUDEAKETA: HERRI
SANFERMINAK**
Errekoleten plazan adin guztietarako eskaintza zabal eta askotarikoa aurkituko duzu. Eguneko programazioari dagokionez gomendatzen dizuegu egunero bertatik pasatzeko, eskaintza egunetik egunera aldatzen baita: haurrendako jolasak, zumba, arratsalde antitaurinoak, olinpiada herrikoiak, hainbat estilotako kontzertuak... Gauetz, gau-giroa nabarmentzen da batez ere, eta aukera izanen dugu tokiko eta nazioarteko taldeen musikarekin gozatzeko. Gehiago jakin nahi? Informazio osoa www.herrisanferminak.org webgunean aurkituko duzu

O-KO ANDRE MARIA PLAZA

**KUDEAKETA: HERRI
SANFERMINAK**
Leku atsegin baten bila Iruñean? Zatoz O-ko plazara! Bertako ezaugarri berezietako bat izanen da tokiko produktuez osaturiko txoko ekologikoa: garagardoa, sagardoa, ardoa... Eta jatekoak! Goizez, hamarretakoak emanen dira uztailaren 6, 7, 12, 13 eta 14an. Eguerdian, kolektiboen bazkariak egingen dira, eta gauetz afaltzeko aukera izanen da. Uztailaren 6ko hamarretakorako komeni da erreserbatzea. Bestalde, txikiek jolasteko eta ongi pasatzeko espazio bat izanen dute. Horretaz gain, musikarekin eta mota guztietako ikuskizunekin disfrutatzeko aukera izanen da.

ANTONIUTTI

**KUDEAKETA:
FAIN, ALPARGATIKA,
MORENADA
DE LOS ANDES,
REFUGIADOS
EN ACCIÓN, RENACER
ANDINO, ADES, ADIFF,
CORAZÓN BOLIVIANO,
SUMAJ SONQO, SALAY
BOLIVIA**

Kulturarteko gune honetan, Iruñaldean bizi diren munduko toki ezberdinetako kolektiboak biltzen dira, elkarte eta mugimendu sozial, feminista, solidario, bakezale, ekologista eta abarrekin batera. Bestelako programazioa eskaintzearekin batera, Nafarroako produktuen eta munduko zapore ezberdinen arteko fusioa dastatzeko aukera izanen da.

BASOTXOA

**KUDEAKETA:
ESKUALDE ETXEEN
NAFARROAKO
FEDERAZIOA**

Aurten berriz ere, Eskualde Etxeen Nafarroako Federazioaren kolektiboak jarduera gastronomiko, sozial eta kulturala eskaintzen digu. Inguru paregabe, familiarreko eta abegikor batean, gure jatorria gogoratzen dugu eta etorkizunari begiratzen diogu. Eta nolako pontza halako dantza baita... Zatoz, edan, jan, dantzatu, begiratu, entzun eta gozatu, handia da-gero festa! Gozatu gastronomia guztiak eragozpenik gabe. Ikuskizunak, egunez eta gauetz. Zuen bisitaren zain... Viva San Fermín - Gora San Fermín